

San Inazio 1491-1556

15 minutaz San Inazio Loiolakoaren bizitzaren kondatzea galdegina izan zaut.

Holako bizi aberats eta emankorra hain denbora laburrez presentatzea ezinezkoa izana gatik, halere zonbeit gauza erranen ditugu labur bada labur...

Historian beti hasi behar da urteak finkatuz. Errexenetik has gaiten: **1522** aise da oroitzea dela 500 urte beraz Bainan **1521** ere lot dezagun huni. Inigo Iruneko harresietan kanoi ukaldi batek zangoa xehatzen dako. **1522** an aldiz bihotz berriturik Kataluna alderat abiatzen da. Bigarrena da Inigoren sort urtea kolpatua delarik 30 urte ditu beraz hortarik karkulatzen duzue **1491** an sortua dela. . Eta azkena haren heriotzeko urtea 65 urtetan hil zen beraz karkulak untsa egiten baduzue **1556** erat heltzen gira. Urte horiek gogoan balinbadituzue dena aise segituko duzue.

Has gaiten hastapenetik ! 1491 ean sortu zen beraz Inigo eliza hunen ondo ondoan dagon jauregian. 13 haurridetarik gaztena,

aita : **Beltran Ibanez de Onaz,**

ama : **Marina Saez de Licona.**

Bataioko izena Inigo Lopez de Loyola.

Loiolatarrak Kastillago erregen meneko eta zerbitzuko dira aspaldidanik 1200 urtetik goiti hain xuxen.

Ez zuten Loyolarrek estudioendako gustu haundirik Badakigu ahatik musika eta dantza maite zituela Inigok.

Borrotatzea ere bai armak eskutan. Hemen berean Azpeitian ez zen beldur Loiolatarren ohorea eta lekua defendatzea. Hauzitan eman zuten ... beharrik babestua baitzen ...

Anartean Kastillako erregearen zerbitzuko igortzen dute Juan Velazquez zergetaz arduratzen den ministroaren mutil.

Ondotik Najera ko dukearen zerbitzuko da. Denbora hortan haundi maundien bizia eramanen du. Ohore gose da denbora berean ausarta deusek izitzen edo beldurtzen ez duen horietarik. Okasione horietan ainitz jende ezagutuko ditu. Ondotik ederki baliatuko baitu.

Bainan Inigoren bizia ez dugu munduan barna pasatzen diren gertakarietaz berexten ahal.

Begira:

Urte horietan Europa guzia kaldan da.

1491 an sortu zela denek eskola ikasi duzu urte bat berantago 1492ean beraz Granadatik kasatu zituztela Espanolek azken musulmanak eta juduak denbora berean. Urte berean ere Kristobal Kolon marinela Amerikako lurra jo zuela. Urte horietan ere Leonardo de Vinci edo Mikel Ange artistek beren obra ederrenak egiten ari dira . Urte horietan ere hor ditugu Rabelais, Erasme, Calvin, Luther, Machiavel Thomas More ...

Kaldan ere Euskal Herria eta partikulazki Nafarroa. 1512 ean Kastilla/Arragoiko errege Ferdinand katolikoak Gipuzkoarrak eta Loyolatarrak lagun Nafarroa konkistatzen du. Bainan Nafartarrek ez dute amor emaiten partikulazki Jasotarrek. Luis eta Juan Jaso Xabierrekoak armak eskutan Nafarroa defendatuko dute bururaino.

Eta hain xuxen 1521 eko maiatzaren 20 ean Irunean batalla gaitza. Inigo Loiolakoa eta Parrean Nafartarrak François 1^{er} Erregeak igorri Frantses soldadoekin. . Kanoi kolpe batek zangoa xehatzen dako. Biziki serioski kolpatua Loilolarat ekartzen dute. Zernahi sofritzen du. Zangoa artatzen dute, berriz hausten (anezteziarik gabe bixtan da) Gure gizon gaztearen amets guziak hautsiak dira. Zertan pasa denbora ? Liburu guti irakurtzeko eta denak debozinezkoak edo saindu bizitza batzu. Zer pasatu den xuxen Inigoren baitan sarri predikuan esplikatua izanen zauku.

Bainan doi bat xutik abiatu orduko horra gure Loilatarra sort etxea uzten duela. 1522 eko otsailean gira.

Urte hartan berean Cortes konkistadoreak Mexiko konkistatu du, Luther Eskominiatua da, Sebastian Elcano munduko lehen itzulia eginik berriz ere Etxerat heltzen da. Urte hartan ere Elizondotik hurbil Amaiur herrian Nafarroako gerlako azken batalla. Jasotar Xabierreko Luis eta Juan anaiek ez dute oraino amor eman eta oraino Kastillako armadari buru egiten dute. Alferrik ahatik.

Gure Inigok beste konkistarik du oraikoan buruan.

Loiolatik Kataluna aldera egiten du Montserrarat lehenik han bere jauntzi ederrak eta ezpata uzten ditu untsa adierazteko biziz aldatzen dela. Manresa herrirat doa ondotik. Pobre eta eskale bizia hautatu du. Bakardadean, oraino mila duda ditu. Zer egin ... depresio haundi bat jasaiten du eta denbora berean esperientzia espiritual haundiak egiten.

Jerusalemerat abian da, han bederen lur sainduetan aurkituko ahal du bakea. Bainan han ere dezepziona ikaragarria. Edozoin deboziona egiteko pagatu behar da ! Zer komedia ... Inigoren amets guziak hautsi dira. Berriz ere Espainia alderat heldu da lehenik Barzelonan eta ondotik Alkanan.. Pasatzen den leku guzietan jendeak argitzen ditu, katixima egiten ere. Berriz ere problemak elizarekin oraikoan. Ez duela libro predikatzea. Gradurik ez duela hortako... Alunbrados horietarik ote da ? Zonbeit aste preso da bainan norbaitek lagundurik libratzen dute. Ondotik Salamanka. Bainan inkiziziona beti gibeletik.

Pariserat.

Historiorik ez ukaiteko estudiantzerat abian da aski urrun Pariserat. Lizenzia bat ardietsiz geroz bakean utziko dutela. 37 urte ditu eta dena berriz haste . Logika, metafisika, Aristote ...teologia gostaia gosta bainan azkenean behar diren diplomak biltzen ditu.

Estudiante guziek hori badakite nunbait behar dela lo egin zerbait behar dela jan. Orai bezal bezala gazteak elgarrekin alokatzen dute apartamendu bat. "Kolak » baten bila dabilta bi 22 urteko gazte. Lehena Pierre Favre Savoie aldekoa mutiko humila otoitzekoa eta ... pentsa nor ? Nafartar gazte bat bera baino 15 urte gutiago dituen : hau dugu *Jasotar* Xabierreko Frantses. Luis eta Juanen anai gaztena. Aise da pentsatzea ez zela lehen harremana batere untsa pasatu. Gazte ausarta, bitxo gogorra, besta maite, eskolan aise ari ez zen errex izan bere bidetik aldaraztea ... Bainan azkenean bildu zuen edo hobeki erran Jainkoari buruz itzuli zuen bera baino Nafartar gazte suharra.

Eta egun batez denbora hartan Parise ondoan den *Montmartre* en 7 lagun elgarri josten dira Jainkoaren baitan lagunak izanen direla. Beraz zerbait sortu da egun hortan ondoko urteetan barnatu eta argituko dena *Jesusen Lagundia* urratsez urrats bilakatuko dena.

Orai arte Inigo deitzen zena hasiko da Inazio izenarekin bere letren sinatzen.

Berriz ere Loiolan.

Bainan oraino ez gira hortan ez baidaki xuxen oraino zeri buruz jo eta partikulazki nola egin. Jerusalemerat berriz joan ? Anartean 7 lagunak berexten dira . 2 urteren buruan Venezian berriz elkartuko direla hitz emanez. Inazio berriz ere Loiolarat itzultzen da 5 ilabetez hemen egonen . Egonaldi hori baliatuko du besteak beste Loiolatarren eta Azpeitiarren arteko aspaldiko gatazkak konpontzeko. Nahiz nehor ez den bere herrian profeta denak ohartzen dira zerbait kanbiatu dela

gure Inazioren baitan. Ainitz ongi eginik Espainian barna ibili eta horra bi urteren buruan berriz ere Pariseko 7 lagunak elgar kausitzen dutela Venezian. Horieri beste 3 juntatu direla. 10 beraz. Jerusalemeko joaiteko prest. Anartean han dabilta hospitaletan erien artatzen pobreen soleitzen ... Apezterat onartuak dira bainan ilabetea jin ilabetea joan Jerusalemeko itsas untzirik ez baita agertzen uko egin behar diote lur sailduetarat joaiteko asmo horri. Zer egin ? oraino ez dakite xuxen zer bilakatuko diren. Parisen zin egin agiantzak erreberiturik emeki emeki antolatzen hasten dira.

Erromako aldi.

Erroman daude orai eta orduko aitasaindua den *Paulo III* garrenak errezebitzen ditu. Hau berehala oihartzen da gazte horiek ez direla nor nahi. Deliberatiak, jakintsunak, guziz Jainkoari emanak eta elizari leial. Hain xuxen bada zer egin ! Erreforma haundiak egin behar dira lehen bai lehen. Eliz gizonen jarrera eskandalagarriak salatu eta kristau elkarteak berriz xutik eman. Zeren Luther eta Calvin ari dira tiraala beren alde beste Eliza batzuen sortzen. Protestantak Europa guzian hedatzen dira.

Inazioren lagunak ez ote laizke elizaren erreformatzeko langile suharrenak ? Gainera ez ote dute aita sailduaren peko jarri nahi hunek mana ditzan behar orduen araberako lanetan har diten.

Holaxe dira beraz gure lagunak antolatzen Jesusen konpainia izena hartuko duen lagundia batetan. Etsai frango kontra agerturik ere, Aitasainduak hauen araudiak onartzen ditu. 1540 urtean gira. Ondoko urtean Inazio, talde horren buru hautatua da.

Bainan jadanik gure jesuistak eskuin eta ezker erran nahi baita mundu guzian galdegiten dituzte. Hala nola Xabierreko Frantses. Asia alderat igorria da Indietan, Komorretan, Japonian barna Txinan sartzeko punduan delarik hiltzen dela gure Jatsuarra. 1552ean. 46 urtetan beraz.

Gure Loiloatar semea Erroman dago bere lagunekin. Sortu duten lagundiaren buru. Handik kasik mugitu gabe ehunka, milaka letra igorri eta errezebituko ditu bere lagunak. Batzutan urteak emanen baidituzte itsasoen iragaiten. Hala nola 2 urteren buruan baizik ez du jakiten bere adiskide Xabierreko Frantses hil zela Txinan sartzeko pundian zelarik.

Zernahi gazte sartzen dira eta hiltzen delarik 1556 ean 65 urtetan 1000 jesuista badira jadanik. Osagarriz aspaldidanik mendratua eta denbora Berean fierra uztailaren 31an azken hatsa emaiten du.

Geiago jakin nahi duenari liburu bat gomendatzen dauzuegu :

Albert Longchamp ek idatzia hain xuxen Lapurdi Irratian Maité Irazoquik irakurturik entzun ditaikena.